



ALEA

arabako aldizkaria



21. KORRIKA

**TIPI-TAPA, #KLIKA,
IRITSI DA KORRIKA**

Jar ezazu zure alea, jaso ezazu zure ALEA
www.alea.eus/harpidetzak

LAGUNDU HIRIA GARBI MANTENTZEN



Zabor poltsak edukiontzi eta buzoietan utzi



681 102 020





ALEA 190

2019-04-12 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
ERLANTZ ANDA.

Aurkibidea

- 4 Korrika, Araban zehar.
- 10 Korrikako arduradun Asier Amondori elkarriketa.
- 14 Euskararen aldeko lasterketaren azken jaia, Gasteizen.
- 18 Korrikak Gasteizen egingo duen ibilbidearen mapa.
- 20 GEU, Oihaneder eta ALEAk bere kilometrora eramango duten gonbidatu berezia.
- 22 Euskaraz Bizi elkarte Korrikan agurtuko da.
- 24 Generoarekin jolasteko deia.
- 26 Korrikako furgoneta gidariei elkarriketa.
- 28 5+11 Fundazioa, kirolari lotutako balioak.
- 30 Gure bazterrak: Franku.
- 32 Zozketak.
- 34 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzaileak

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Kolore anitzeko Korrikak busti du lurraldea

Gasteizera sartzeko atarian, lurraldeko zazpi kuadrillen paisaiak zeharkatu ditu 21. Korrikak, asteartea eta asteazkena bitartean; Arabako adin guztietako jende ugari herrietako kaleetara atera da irrintzika eta zalapartaka, bakoitza bere erritmora. Euskararen lekukoa arrapaladan doa, helmugara.



Arabako kolore guztiak ordezkatu ditu 21. Korrikak lurraldean egin duen lehen sarreran. Lautada zabaletatik aldapa pikoetara egin du salto Egiletatik Azazetako mendatera abiatu denean, eta Nafarroan sartu-irten laburra egin ostean, mahastien eta olibondoen paisaietan barrena sigi-saga ibili da. Eguna iluntzearekin batera sartu da Korrika herrialdeko eremu ezkutuenetan, Urizaharra aldean, eta jaurtialdi luze eta zuzena egin du Trebiñura hurbiltzeko. Gaez eta euria goian behean zela iritsi da euskararen aldeko lasterketa zortzigarren kuadrillara, eta bertan ehunka herritarren babesa eta indarra sentitu ditu. Trebiñun egin du ALEAk bere kilometroa, Mikel Arribas bertako euskaltzalearen urratsen atzetik; eta gainera, ibilbidearen ekuatorea xanpainez ospatu dituzte Korrikazaleek kilometro horretan. Arabako mendebalde ezkutua oso urrundik ukitu duen arren, Langraiz Okan eta Erriberagoitian egin ditu kilometro gutxi batzuk; eta halaber, Gorbeialdeko zatirik handiena iganderako utzi du. Aiaraldeko bazter menditsuetan agurtu du lurraldea Korrikak, iganderarte. Gasteiz bilakatuko da egun horretan euskararen aldeko konpromisoaren hiriburua. ■

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**





Agurainen lekukoa eraman zuten ikastetxe, ikastola eta institutuko ikasleek. ALEA

Klikaren erritmora mugitu da Lautada

Asteartean goizean goiz ekin zion Korrikak Arabako ibilbideari Lautadan barrena. Dozenaka lagunak egin zioten ongiatorria. Goizaldean heldu zen Asparrenera eta Agurainera, eta jendetza hartu zuen Lautadako herri nagusian. Musika alaiak eta animoak lagundu zituzten korrikalariak kilometro guztietan.



Eskolako umeez egin zuten Kanpezun Korrikaren lehen kilometroa. E.LANAO

Hotza berotu dute Mendialdean

Azazetan gora Mendialdean sartu zen 21. Korrika. Sabandoko, Azazetako, Birgarako eta eskualdeko hainbat herritako lagunak hartu zuten lekukoa mendatean behera, eta Kanpezura iritsi arte. Goizeko hotzak eta aldapa zorrotzak menderatu behar izan zituzten korrikalariak ibilbide osoan zehar, baina animoz eta indarrez ibili zen Korrika bertan.

artepan





Lantziego ikastolako amak aldapan gora, Korrikan. E.UGARTE

Arabako Errioxan kolore guztiak batu dira

Gogo handiz heldu zioten Korrikari Arabako Errioxa osoan; Binasperin, Ekoran, Samaniegon, Lantziegon, Guardian edo Bastidan harrera beroa egin zioten gazteek eta helduek.



Korrikalari finek hitzordua egin zuten Añana aldean. AÑANAKOAK

Añanan indarrez ibili da

Gainerako herrietan baino jende gutxiago batu bazen ere, indarrez eutsi zioten Langraiz Oka eta Kuartango arteko ibilbideari inguruko bizilagunek; aurretik prestatutako basurde-janak lagunduko zituen, ziur.



Lurraldetasunaren aldeko aldarrikapenak bat egin zuen euskararen aldeko lasterketarekin, Trebiñun. ANDONI BASTERO

Lurraldetasunak eta euskarak eskua eman dute Trebiñun

Euskal Herriko hainbat txokotako herritarrak hurbildu ziren astearte gauean Trebiñura, Arabako zortzigarren kuadrillaren aldarrikapenarekin bat egiteko asmoz. Hortaz, lurraldetasunaren aldarrikapena presente egon da Kuadrillako kilometro guztietan, euskararen aldeko oihuekin batera. Urizaharretik sartu zen Korrika, Armentiaiko Bentan, eta Argantzun igarota atzean utzi zuen zortzigarren kuadrilla.



EKAÍN
ABOKATUAK

VITORIA - GASTEIZ
Herrería kalea, 28 - 01001
T 945 27 27 00 F 945 27 86 62
ekain@ekain.eus

DONOSTIA
Portuñeta, 53A - 2018 Bulegoa - 20018
T 943 32 04 75 F 943 32 04 75
ekain.donostia@ekain.eus

www.ekain.eus

UDAL ETA HERRI
ERAKUNDEEN
AHOLKULARITZA





Izarratik ordu txikitan ibili zen 21. Korrika. MANEX AGIRRE

Ordu txikitan ibili dira Gorbeialdean

Kuartangotik Urkabustaizera eta Zuiara sartu zen Korrika, asteazken goizaldean; halere, berandu oheratzea ez zitzaien axola euskaltzaleei, eta arrapaladan eraman zuten lekukoa Abornikanon, Ametzagan, Murgian, Bitorianon eta Izarran.



Etxaurren ikastolako ikasleek egin zuten kilometroaren irudi bat. @ERREHARRIA

Aiaraldean indarberritu da Korrika

Goizeko bostak pasata sartu zen Korrika Aiaraldean, Urduñako Barrerillatik. Urduña, Amurrio, Arespalditz, Luiaondo, Audio, Areta, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo bisitatu zituen. Udaletako ordezkariak, langileak, ikasleak, irakasleak, emakumeen taldeak... izan ziren errepidean. Denetariko lagunek ongietorria eman zioten Korrikari, eta Bizkaia aldera egun hauetan egingo dituen urratsak lagundu eta bultzatu zituzten.



Gozatzeko garaia, eta
baita aurrezteko ere

2. alea

-70%

marka nagusietako ehunka
produktutan



CARBONELL

Oliba-olio
birjina estra, 1 L

Lehenengo
alea:

5,45€

Eta bigarren
alea:

1,63€



EROSKI

50 zurekin

2019ko apirilaren 24ra arte.
Kontsulta itzazu produktuen eskuragarritasuna zure dendan.

supermercado.eroski.es

"Garai berri honi etekina atera nahi diogu, herri gogoa badagoelako"

ASIER AMONDO KORRIKAKO ARDURADUNA

2.560 kilometroko ibilbidea gainditu ondoren, igandean emango dio amaiera Korrikaren 21. edizioak, Gasteizen. Asier Amondo Korrikako arduradunak aurtengo xehetasunen berri eman du.

Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Mikel Ezkerro - GOIENA**.

Apirilaren 4an hasi eta 14ra bitartean, 21. aldiz zeharkatuko du Korrikak Euskal Herria. Adin eta mota guztietako milaka eta milaka lagunek euskararen alde, gau eta egun, gelditu gabe, 2.500 kilometrotik gora egingo dituzte.

Nolakoa da Korrika moduko ekitaldi edo ekintza bat antolatzea?

Korrika bat antolatzea ez da erraza... Prozesua urtebete lehenago abiatzen dugu. Mezua, omendua, leloa... Eta ez da erraza izaten, Korrikak bere menuan plater asko dituelako: kanta, unitate didaktikoa, aplikazioa, Korrika laguntzailea... Eta hori guztia josi egin behar da, ondo trinkatu behar da, eta, bakoitzak bere erritmoak dituen, dena ondo lotzen saiatu behar dugu, gero jendearengana ondo bidaltzeko eta heltzeko.

Antolaketa sare horretan, ezinbestekoak izango dira boluntarioak ere...

Boluntarioen kopuruaz hitz egitea zaila da. Korrika sasoietan, herri, auzo eta eskualde ezberdinetan 200 Korrika batzorde aktibatzen ditugu, gutxi gorabehera. Batez besteko bat eginez gero, 200 batzorde horietan hamar lagun badaude bakoitzean, 2.000 boluntario inguru izango lirateke. Gero, kontuan izan beharko genituzke AEKn bertan dauden eta Korrikarako lan egiten duten 500 kideak ere. Zaila da kopuru bat jartzea, baina esan behar dugu asko direla Korrikan lanean ari direnak. Oso argi dugu boluntarioen laguntzarik gabe zaila litzatekeela Korrika bat ateratzea. Guk, AEK-k bakarrik bere kideekin, ezingo genuke. Azkenean, Korrika elkarlan eta auzolan erraldoi bat da, Euskal Herri osoa aintzat hartzen duen eta 2.500 kilometro egingo dituen auzolan erraldoi bat.

Lehenengo Korrikatik ia 40 urte pasatu dira... Erraz esaten da, baina belaunaldiak joan eta etorri egin dira bitartean.





Asier Amondo, Korrikako arduraduna. MIKEL EZKERRIO

Belaunaldiak joan dira, bai. Guk aurreko Korrikan omendu genituen Korrikaren sortzaileak, uste genuelako hau asmatu zutenek AEKren eta Korrikaren errekonozimendua behar zutela. 40 urte pasatu dira, eta gauzak asko hobetu dira, baina oraindik ere 40 urtetan euskaltegien egoera normalizatu gabekoa da. Eta oraindik Korrikak helburu ekonomiko bat eta sustapen helburu bat ere badu. Guk bilatzen duguna da helburu ekonomikoa apur bat estaltzeari edo erabiltzeari begira, Maulen, Tafallan edo EAEn dagoen ikaslea baldintza bertsuetan egotea, eta zerbitzu bera jasotzea. Korrikak alde horretatik hauspoa ematen digu horrelako gauzatxoak eta inbertsioak egiteko, eta AEKren zerbitzuak Euskal Herri osoan berberak izateko.

Zer azpimarratuko zenuke aurtengo Korrika honetatik?

Nik uste dut Korrikak badituela edizioz edizio errepikatu diren gauza batzuk. Mezua, omendua, leloa... Gero, geratzen da beti azken egunerako mezu ezkutu hori, eta nork idatzi duen eta nork irakurriko duen. Nire ustez, Korrikaren magia hor dago. Aurtien berrikuntzak? Berrikuntzak beti daude, neurri batean. Agian, ez dira horren adierazgarri edo ikusgarri, baina badaude. Nire



ustez, Korrikaren magia oraindik horretan dago, gau eta egun ibiltzea 2.500 kilometro egiten, Euskal Herriko bazter guztiak ukitzea, mezua, omendua, leloa, azken eguneko mezua... Hori da, nagusiki, Korrikaren xarma.

Klika egitea eskatuko duzue aurtan. Klika, zertan?

Zertan egingo den klika ez dakit. Zertan egitea nahiko genukeen badakigu. Guk nahiko genuke jendeak klika egitea. Euskara ez dakienak euskara ikastea, euskaraz dakienak euskaraz mintzatzea. Klika nahi dugu ere instituzioek, alderdi politikoei eta sindikatuak, denek konpromisoa hartzea euskararen berreskurapen edo eskurapenaren bidean baurra arraun egin dezagun. Garai berri baten aurrean gaude, eta garai berri honi etekina atera nahi diogu, herri gogoa ere badagoela uste dugulako. Euskaraldiak frogatu egin du hori duela hilabete batzuk. Beraz, konpromisoak hartzeko sasoia da eta nork bere ahalegin propioak egiteko eta euskara ez dakien hori euskarara hurbiltzeko. Horretarako baliabideak baditugu egun Euskal Herrian, euskara irakasteko eta gure mundura erakartzeko pertsona hori eta gure munduaren parte izateko.

Omendua Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi izango da. Zer dela eta aurtan?

Guk esaten dugu Txillardegik hirutan egin zuela klika. Klika egin zuen erdalduna izatetik euskalduna izatera pasatu zelako, euskara ikasi egin zuen. Literatura modernoa ekarri zigun, gainera, eta hirugarren eta guretzat garrantzitsuen dena da helduen alfabetatze euskaldunetik gatzelako, Txillardegik 1968an Arantzazun egindako batzar hartako tesiak izan zirela nagusitu

zirenak eta erabili izan ditugunak orain arte euskara batuaren bidean. Beraz, Txillardegi euskara batuaren aitetako bat kontsideratu behar dugu, eta gure omena uste dugu beharrezkoa duela, gure euskara estandarra, batua, gaur egun mintzatzeko erabiltzen dugulako, nagusiki.

Kantaren inguruan sorturiko polemika piztu da aurtan. Nola eraman duzue?

Egia esan, polemika horrek ez gaitu askorik arduratu. Onartzen dugu kanta bat batzuen gustuko edo disgustuko izan daitekeela. Bai uste dugu kantarekin asmatu dugula. Asmatu dugu, hain zuzen, bideoklipen ematen den itxura horretan badagoelako jendea euskaldun moduan jantzita dagoena, euskal dantzak irudikatzen dituztenak, eta badago beste jende bat rap mundua irudikatzen duena. Euskal dantzak egiten dituzten horiengana heltzen gara, gutxi gorabehera gure kulturaren txertatuta daudelako. Baina badago beste jende asko euskararen eta gure herriaren periferian bizi dena, eta horiengana ere luzatu behar dugu Korrikaren mezua, eta luzatu behar dugu euskararen mezua. Polemika sortu egin da, baina uste dugu gure helburua ondo bete dugula, azkenean, periferian dagoen horiengana heldu nahi dugulako, eta periferian dagoen horrek eman behar diolako arnasa eta putza euskarari.

Zerbait aurreratu ahalko zeniguke amaierako ekitalditik?

Aurreratu, aurreratu... Gasteizen 12:30ean amaituko da Korrika, eta mezua irakurriko da. Gasteiz beti izaten da marko polita parranda ona egiteko, eta Korrikarekin euskaraz mintzatzeko. Klika egiteko aproposa. ■■■

M Mencia Optika

www.menciaoptika.eus

Andra Maria Plaza eta Olagibel 33



**ZATOZ
GUREKIN
KORRIKA
EGITERA!!**



GERTU

ARABA EUSKARAZ 2019

Ekainak 16 · GASTEIZ



Armentia
IKASTOLA



ikastolenelkartea

Gasteizek ere 'klika' egingo du

Igandean amaituko da Korrika Gasteizen, Euskal Herri osotik 2.560 kilometro egin ostean. Andre Maria Zuriaren plazan irakurriko dute lekukoak daraman mezua, 12:30ean. Aurretik eta ondoren ere, festa izango da nagusi hiriburuko erdigunetik banatuta egongo diren zazpi guneeetan. Testua: **Mirian Biteri**.

Jaia. Hori da igandean, hilaren 14an, Gasteizko erdigunean nagusituko dena. Arabako hiriburura 08:22ean sartuko bada ere, euskararen aldeko lasterketa ez da 12:30 arte amaituko. Hain justu, lau ordu pasatxo emango ditu kaleetatik bueltaka Andre Maria Zuriaren plazara heldu arte; tartean, GEU, Oihaneder eta ALEAko lagunek Salburuko Juan Carlos I eta Stockholm kaleen arteko bidegurutzean hartuko duten kilometroa dago; aurreikuspenen arabera, 10:46ean hartuko dute lekukoa. Azken metroak egin eta jarraian hasiko da amaiera ekitaldia Andre Maria Zuriaren; lekukoa zabaldu eta bertan gordeta duen mezua ezagutaraziko dute orduan.

Eta horren ostean, zer? Festa. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute erdialdetik banatuta egongo diren zazpi guneeetan. Aihotz plazan, esaterako, dantza emanaldia eskainiko du Algara taldeak ekitaldia amaitu bezain pronto; Plaza Berrian, berriz, Kidam magoa izango da, eta Buruileria enparantzan, Miren Narbaizaren bakarkako proiektua entzuteko aukera izan da. Bazkaltzea nahiago dutenak Landatxo kiroldegira joan ahalko dira, bertan jarriko baitute herri jantokia. Dena dela, horrez gain, gune guztietan egongo da jatekorik: Foru plazan, bokatak; plaza Berrian, taloak; Aihotz plazan, bildots errea; eta Buruilerian, pizzak.

Festak, bitartean, ez du atsedenik izango. Foru eta Buruileria plazetan, askotariko kontzertuak egongo dira arratsaldean; Aihotz plazan, bertsolariak, dantza plazan eta Korrika kantuaren koreografia izango dituzte, besteak beste. Gunetako ekintzez gain, kale animazioa ez da faltako egun guztian, hala nola, albokariak, txistulariak, hankapaloak, txalapartariak edo karaokea. ■



945 25 38 94
Info@iparmotor.com
Leon Kalea, 01003 Vitoria-Gasteiz



Zure kotxea
uda aurretik
prest?

PROBINTZIA PLAZA

11:00 Ekoizle arabarren azoka: besteak beste, garagardo artisauak, ardoa, sagardoa, txakolima, nekazal produktuak, Idiazabal gazta izango dira, eta baita Euskal Herriko artisauak ere.

13:30 Txotxongilo ikuskizuna: *Ardi Latxa oihanean galdu zenekoa*. Martxanilak taldearen eskutik.

15:00 Orbanak talde gasteiztarraren kontzertua.

16:30 Big Band Berri orkestraren eskutik, jazz doinuak entzungai Probintzia plazan.

POSTA KALEA

13:00 Bi azoka egongo dira ikusgai Posta kalean: Herri mugimenduak antolatutakoa, batetik; eta Arabar artisauen azoka, bestetik. Horrez gain, Korrikako furgonarekin argazkia atera ahal izateko *Photocalla* ere jarriko dute bertan.

PLAZA BERRIA

13:30 Kidam magoaren hurbileko magia ikuskizuna.

13:30 Jolas tailerrak.



ERRIKARTE AGIRRE ETXEBERRIA

Harresian Zulo

AIHOTZ PLAZAN, 19:30EAN

Euskal-afrikar folk doinuak izango dira Aihotz plazan, bederatzi musikarik eta hiru dantzarik osatzen duten Harresian Zulo musika talde gasteiztarrari esker.





GASTEIZKO UDALA

Txotxongilo ikuskizuna

PROBINTZIA PLAZAN, 13:30EAN

'Ardi latxa oihanean galdu zenekoa' aurkeztuko du Martxanilak taldeak. Ardi latxak belardiak atzean utzi ditu eta oihanean agertu da! Zer egingo ote du?

Euskara bertatik bertara!

- Helduak eta gazteak
- C2 on line IVAPeko azterketarako
- Jardun bikoak
- Azterketa ofizialak
- On line ikastaroak

www.udaberria.eus

15:00 Beldurrik ez akrobazia ikuskizun emozionala, Zirkulanduz taldearen eskutik.

16:30 DJ Porrurekin, etxeko txikienei zuzendutako erromeria dibertigarria.

AIHOTZ PLAZA

13:30 Dantza ikuskizuna Algara taldearekin.

15:30 Arabako emakume bertsolarien saioa.

17:00 Azido Folkoriko dantza plazan parte-hartzailea.

18:00 Munduko dantza tailerra eta Korrika abestiaren koreografia, Goianen eskutik.

19:30 Kultura musikal ezberdinak uztartzen dituen Harresian Zulo taldearen kontzertua.

BURUILERIA PLAZA

13:30 Kontzertua: MICE. Miren Narbaizaren bakarkako proiektua.

15:00 *Bakean dagoena, bakean utzi* izeneko umorezko antzerkia, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai aktoreen eskutik.

16:30 Konpost taldearen kontzertua.

18:00 Ene Bada, Aiana eta Aneguria taldeek kontzertua eskainiko dute Buruileria plazan.

LANDATXO

13:30 Herri jantokia jarriko dute Landatxo kiroldegian. Bi txanda egingo dituzte: 13:30ean lehena, eta 15:30ean bigarrena. Bazkaria ekologikoa izango da, eta sagardo kupela jarriko dute eskura.

FORU PLAZA

KONTZERTUEN GUNEA

14:00 Libe.

15:30 Trikoma.

17:00 Koban.

19:00 Gozo-gozo erromeria.

Arabako Sagardotegiak ere, **korrikaren** alde!



**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**



Bº Arraga, 2 / Aramaio
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



21. korrika
2010ko martxoaren 21a
GARESTIK GASTEIZA

Txooootx!



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU

Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683



Arabak,
arabako sagardoa!





21. korrika
21.º edizioa 2011n 41.º. urte
GARESTIK GASTEIZA



A
L
E
A

Zatoz GEU, Oihane
batera euskararen

(Juan Carlos I - Stockholm kalea)

Sansomendi

Lakua

Alde zaharra

San Martin

Zabalgana

Unibertsitateak

Informazio guztia: www.alea.eus

Apirilak 14, igandea



er eta ALEAko lagunekin
aldeko pausua ematera!!

arteko gurutzea, 10:30etik aurrera)

Zaramaga

Aranbizkarra

Judimendi

Adurtza

Salburua

KORRIKA jaia - Guneak

- 1 Andre Maria Zuriaren plaza
- 2 Foru Enparantza
- 3 Enparantza Berria
- 4 Aihotz plaza
- 5 Farolola
- 6 Landatxo kiroldegia
- 7 Burulleria enparantza
- 8 Probintzia plaza
- 9 Posta kalea

KM	ORDUA	LEKUKOA
2471	08:22:59	SPIDERABEL
2472	08:26:00	
2473	08:28:10	ARTEPIAN
2474	08:30:15	AMVISA
2475	08:32:47	LAMINACIONES ARREGUIKO LANGILEAK
2476	08:35:10	GAZTE DI RUGBY TALDEA
2477	08:37:33	ERNAI
2478	08:40:33	AMVISA KO LANGILE BATZORDEA
2479	08:43:00	MICHELINO LANGILEAK
2480	08:45:27	GAZTEIZKO SUHILTZAILEAK
2481	08:47:46	JARE DANTZA TALDEA - MANUEL IRADIER TXANGOLARI ELK.
2482	08:50:25	ILUSIA ETA NESKEN ELKARTEA
2483	08:52:52	INDAR BASKONIA (IRALTZA 192)
2484	08:55:19	ASETXOKO HERRIA
2485	08:57:51	KUTXABANKERO LANGILEAK
2486	09:00:18	ARABAKO KOOPERATIBEN EUSKARA BATZORDEA
2487A	09:02:19	DORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
2487B	09:04:30	LANTZALE
2488	09:06:40	EGIBIDE
2489A	09:08:46	UNIBASO
2489B	09:10:52	MENDEBALDEA IKASTETXEA - UMANDI IKASTETXEA
2490	09:13:06	SAHARA ELKARTEA - SETEM HEGO HAIZEA
2491	09:15:21	IRIMIRI ZERBITZU SOZIOKULTURALAK
2492	09:17:35	EUSKOTREIN
2493	09:20:02	ZELEDON ELKARTEA
2494	09:22:29	LAKIA INSTITUTUA - BARRUTIA IKASTOLA
2495A	09:24:56	TOKI EDERREKO GURASO ELKARTEA
2495B	09:27:31	LAKUABIZKARRAKO GURASO ELKARTEA
2496	09:30:03	SAN PRUDENTZIO IKASTETXEA
2497A	09:32:09	ELECTRA VICTORIA
2497B	09:34:48	MERCEDESKO LANGILEAK
2498	09:36:58	OLABIDE IKASTOLA
2499	09:39:00	ARABAKO EUSKAL PILOTA ELKARTEA
2500	09:41:48	PUNTU EUS FUNDATZIOA
2501	09:44:11	UEU
2502	09:46:21	FRANZEN ERAIKUNTZA ESKOLA
2503A	09:48:31	OKERRAK ETA BASATIAK ILUSIA ETA NESKA TALDEAK
2503B	09:50:54	LABORAL KUTXAREN GASTEIZKO BAZKIDEAK
2504	09:53:04	ALDIALDE, MARITURRI ETA ZABALGANAKO FAMILIAK
2505	09:55:19	ARMINTIA IKASTOLA
2506A	09:57:29	ARABAKO TEKNOLOGIA PARKEA ETA BIG ARABA
2506B	09:59:52	GLOBE TESTING
2507	10:02:10	BASQUE TEAM
2508	10:04:29	GAZTEIZKO UDALAKO LANGILEAK
2509	10:06:52	5+11 FUNDATZIOA
2510	10:09:19	MENDIZABALA UBI
2511	10:11:50	ARABAKO BURU OSABURU LAN BATZORDEA
2512	10:14:04	EKIALDEA BH
2513	10:16:40	MENDIA OPTIKA
2514	10:18:58	DORA OLARZU EUSKALDUNA
2515	10:21:04	GAZTEIZKO HERRIAK - OKUPAZIO MUGIMENDUA
2516A	10:23:36	ALDARA DANTZA TALDEA INDIARRA DANTZA TALDEA
2516B	10:26:07	ANGEL SANIET
2517A	10:28:25	EUSKARAZ BIZI HARRERETAKO ELKARTEA
2517B	10:30:40	IKASBIDEA
2518	10:32:46	ASPINOVAKO ETA NAJES FOUNTERRIKO LANGILEAK
2519	10:35:00	ONGI ETORRI ERREK UJATUAKO
2520A	10:37:23	ERREKABARRI ETA SALBURUA IKASTETXERAKO GURASO ELK.
2520B	10:39:57	OHIAN, GORBEA ETA ZURBER GURASO ELKARTEAK
2521	10:41:48	SARBUKU ELKARRA ELK. ETA BURDINBERE AUZO ELKARTEA
2522	10:44:15	KILOMETRO TRABESTIA - LUMAGORRI
2523	10:46:25	ALEA - GEU - OIHANEDER
2524	10:48:56	DORA GU ETA GUTARRAKI
2525	10:51:15	KILOMETRO FEMINISTA
2526	10:54:11	ARTEZALEON ETA ARTISTEN KILOMETRO ORBAIN ELK.
2527	10:56:46	SAMANIEGO IKASTETXEA LOS HERRAN IKASTETXEA
2528	10:59:18	KOLDO MITXELENA
2529	11:01:53	EUSKO LEGEBILTZARREKO LANGILEAK
2530	11:04:41	FRANCISCO DE VITORIA INSTITUTUKO EUSKALTZALEAK
2531	11:07:37	LORAMENDI AURRENAK KOOPERATIBA
2532	11:10:39	URKIDE NIÑO JESUS
2533	11:13:30	ELKAR
2534A	11:16:14	AFA ETA DOPEKO LANGILEAK
2534B	11:18:28	SAN VIATORRIKO IRAKASLEAK
2535	11:20:47	OSAKIDETZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA
2536	11:23:06	ARABA ERAKUNTZE SANITARIO INTEGRATIBA
2537	11:25:33	ABENDARGO IKASTOLA MIQUEL DE UNAMUNO BHI
2538	11:28:21	TXAGORITXU ETA SANTIAGO KO LANGILEAK
2539	11:31:04	EMAKUNDE
2540	11:34:01	ABOKATZEN ELKARTE GHORETSIA LOHIANIA
2541	11:36:49	EHU
2542	11:39:28	PARMAZIA, HEZKUNTZA-KIROL ETA ERIZAINZTA ESKOLA
2543	11:42:08	GAZTEIZKO HALA BEDI
2544A	11:44:56	GAZTEIZ KANTUZ
2544B	11:47:36	RPK S COOP ETA ARASKI BASKIBALOI TALDEA
2545A	11:49:50	ARABAKO ODOLEAK
2545B	11:52:04	JUDEMENDI
2546	11:54:21	ANIZTASUNA BAI, ARPAZAKERIA EZI
2547	11:56:37	EUSKO LEGEBILTZARRA
2548	11:59:17	ARABAKO BATZAR NAGUSIAK
2549	12:01:10	ARABAKO FORU ALDUNDIA
2550	12:03:08	GAZTEIZKO UDALA
2551	12:05:27	ETXERAT
2552	12:07:54	GURU ESKU DAGO
2553	12:09:51	EUSKO IKASKUNTZA
2554	12:10:01	EHICE
2555	12:12:19	EUSKALTZAINDIA
2556A	12:14:50	IKASTOLAK
2556B	12:16:17	SINDIKATUAK
2557A	12:18:23	ALDERDI
2557B	12:20:37	UEMA-UDALBILTZA
2558	12:20:52	HEKIMEN
2559	12:22:00	KONTSEILUA
2560	12:24:00	AER

Diplopodo bat adostu nahian

Ohi bezala, GEU, Oihaneder eta ALEA batera arituko dira korrika Gasteizen, baina aurten gonbidatu berezia eramango dute kilometrora: milazango bat. Hura sortzeko lana latza izan da. Eta dibertigarria.

JUANMA GALLEGO

Kameraren eta grabagailuaren atzean egotea dagokio ALEAri, baina Korrikari behar bezalako ongietorria emateko fokuen bestaldera igaro beharra dago. Aurten, Franku eta Askartza arteko tartean hartu du lekukoa ALEAk, baina igandean ere, GEU eta Oihanderreko lagunekin batera, Salburuan egingo du korrika, 2523. kilometroan, hain zuzen.

Aurtengo hitzorduari lagun berria lotuko zaio: milazangoa. Edo, Wikipediaren arabera, diplopoda klaseko artropodoa. Hura eraikitzeko hamabost bat lagun bildu dira joan den ostegunean Oihanederren, auzolanean. Diplopodoaren izaeraren beraren inguruan ere hainbat desadostasun azaldu dira, hasiera-hasieratik. "Ea ba, intsektu bat da, eta intsektuek ez dute mingainik", batek. "Berdin dio", besteak. Bai, 2523. kilometroan korrika egingo duen milazangoak mingaina izango duela aurreratzeko moduan dago ALEA. Mingain hori buruari nola lotuko zaion, ordea, misterioa da oraindik.



Poliespanezko burua du zomorroak. ALEA

Momentuz, Sputnik zuri baten antza duen poliespanezko bola erraldoi batek buruaren funtzioa beteko duela esan daiteke.

Ondo pasatzeaz gain, irakaspen ugariko arratsaldea izan da bertaratu direnentzat. Horietatik garrantzitsuena, agian, poliespanaren gainean spray margoa botata *Alien*, *zortzigarren bidaiaria* filmean agertzen diren zera horien antzeko *zerbait* agertzen dela. Burbuila nardagarri eta guzti. Ez dira ez arrautza estralurtarrak, milazangoaren begi-niniak baizik. Margoa idortzean, gauzak bere onera

bueltatzen direla ematen du. Begiak badaude. Edo begi-niniak, batek daki oraindik. Txikiegiak, batzuen ustez. Atakatik ateratzeko modukoak, beste hainbaten iritzian. Ez ditu izango, bada, Michelangeloren *David* eskulturak dituen proportzioak, baina kilometroari alaitasun eta kolore puntu bat emateko moduan egongo da Milazango jauna. Edo andrea. Zeren hori ere ez baita argitu: eta, agian hobe da gauzak horrela uztea.

Luzea, oso luzea

Bigarren irakaspena: josi baino lehen ehunak batzeko egiten den zera horri albaindu deritzo. Josteko bi makina badira mahaiaren gainean, ez bluetooth ez wifirik behar ez duten horietakoak. Argindarra dagoenean, euren funtzioa betetzen dute. Baina albaintzearen kontua... tira, hori eskuz egin beharra dago; alegia, iraultza industrialia iritsi baino lehen egiten zen modu berdinean aritu. Eta, jakina, haren izaera bera dela, definizioz, milazango batek zango asko ditu. Luzera

ALOR
SOZIOEKONOMIKOAN
EUSKARAREN
ERABILERA
ERRAZTEKO
PROIEKTUAK,
TRESNAK ETA
BALTABIDEAK

Bai Euskarari
Ziurtagiria

Enpresarean

Lansarean

- Balabideak
- #BaiPraktikaEgokia
- Autodiagnostikoa
- Lehen Hitzaz EUS
- Euskaragileak
- Lanabes + Araban euskara lanean
- Lazarraga Sariak

bai euskarari

baieuskarari.eus

Ziurtagiri bai baino askoz gehiago



Auzolanean ibili dira Gasteizko hainbat euskaltzale, 2523. kilometroan egongo den milazangoa sortzeko. ALEA

handiko zomorrotxo maitagarria da. Metro horiek guztiak albaindu beharra dago, eta hor ibili dira ere, jo eta fuego, titarerik gabeko jardun latzean. Heraklesen hamabi lanetan ez bada, gutxitan ikusi da horrelako adorerik oihal baten inguruan. Josteko

makinen txanda iritsita, teknologiari gorazarre egin diote. Ilundu aldera, pozik azaldu da antolatze lanetan ibilitako GEU elkarteko kide Maddalen Agirre. "Euskarari bultzada emango dion milazangoa ia-ia prest daukagu dagoeneko". Behean zortzi

lagun joango direla azaldu du, zomorroaren gorputzari eutsiko dioten uztaiak eramaten. Baina milaka euskaltzaleren laguntza izango du milazangoak. Igandean ikusi ahal izango da, beraz, Oihanderreko tailerretik ateratako azken artelana. Dore bezain luzea. ■■■

Klika

ehbildu

Araba euskalduna klika!

21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Agur ezin hobea antolatu dute

Euskaraz Bizi elkarte gasteiztarrek korrika egiten etengo du bere ibilbide luzea; Florida kalean kilometro bat partekatuko du Ikasbidea ikastolarekin. Jarraian, bazkaltzera joango dira Landatxo kiroldegira.

MIRIAN BITERI

Urte askoan familiei zuzendutako euskarazko hamaika ekimen antolatu ostean, jarduera behin-betiko etetera doa Euskaraz Bizi elkarte. Baina, isilean joan beharrean, agurra modu berezian egitea erabaki dute: hain justu ere, igandean, hilak 14, kilometro erdia erosiz eta korrika eginez agurtuko dira.

Toki Eder ikastolaren inguruan sortu zuen gurasoen talde batek Euskararako elkarte, 80. hamarkadan; tartean, Jesus Salsamendi zegoen. Gogoratu du izen ofiziala Euskararako baldin bazen ere, Euskaraz Bizi deitu izan diotela beti. Umeei

zuzendutako askotariko ekimenak antolatzeari ekin zioten. Batzuk ikasturtean zehar egiten ziren, hala nola, kirol jarduera ezberdinak, eskulanak, euskal dantzak, txistua edo soinua; eta beste batzuk, berriz, uda partera begirakoak ziren; udalekuak, esaterako. Baina, guztiek zuten zerbait komunean: euskara.

Ekintza horiek guztiak antolatzeaz gain, garai batean,

TOKI EDER IKASTOLAREN INGURUAN SORTU ZEN ELKARTEA, 80. HAMARKADAN

Euskal Herriko beste ikastola batzuekin batera talde bat osatu zuten; zehazki, Tolosako Laskorain eta Iruñako Paz Ziganda eta Lizarrako Lizarra ikastolarekin. Horrekin lotuta, honakoa azaldu du Salsamendik: "Jose Luis Gorostidiri esker sortu zen hori, garai hartan Paz Ziganda ikastolako zuzendaria zena".

Postontziak mendietan

Gogoan du sasoi hartan Euskal Herrian zehar sakabanatuta dauden mendietara txangoak egiten eta gailurrean postontziak jartzen hasi zirela: "Postontzi horiek *Argitxo* bat zuten osagarri moduan. Urtero irteera antolatzen zuen ikastolak mendia aukeratzen





Elimendi mendira egindako txango batean ateratako irudia. JESUS SALSAMENDI

zuen, postontzia egiten zuen eta festa prestatzen zuen. Dozena bat baino gehiago jarri genituen", azpimarratu du. Bestalde, Gasteizko jaietan, hainbat urtez, Luis Heintz kalean jarritako txosnarekin ere oroitu da Salsamendi.

Urteek aurrera egin ahala, baina, seme-alabak handitzen joan ziren, eta apurka jarduerak antolatzeari utzi zioten; gaur egun, elkarteko mendi sailak baino ez du funtzionatzen eta horrek jarraitu egingo du. Hori horrela, elkartearen kontu

korrontean oraindik ere duten diruarekin aurtengo korrikaren kilometro erdia erostea erabaki dute: 2517A egingo dute, Florida kalean. Jarraian, Landatxo kiroldegian izango den herri bazkarira joango dira guztiak. ■



ELEKTRIKARIAK



PIZTU!



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, ETXEOAK ETA INDUSTRIALAK

BIOMUNTAIK

SARE INFORMATIKOAK

Tel. 655 732 993 Iñigo

piztusc@hotmail.com

Jausketa, 5
ORDOÑANA (ARABA)

Generoarekin jolasteko deia

Lumagorri heterosexismoaren aurkako taldeak kilometro trabestian parte hartzeko deia egin du; zapaldutako identitateak gogoratu eta 'oilategia' euskalduntzeko mezua eramango dute Salburuan hartuko duten lekukoan.

ANAKOZ AMENABAR

Disfrutatu eta aldarrikatzeko kilometroa izango da Lumagorri heterosexismoaren aurkako taldeak antolatutakoa.

Oilategian euskaraz goiburu, hizkuntza eta generoarekin jolasteko deia egin dute Korrikak izango duen tarte koloretsuenetako batean; Salburuko Juan Carlos I eta Amsterdam kaleen arteko bidegurutzean izango da hitzordua, 10:30ean.

Trabestiak ardatz dituzten bi urtemuga izango dituzte gogoan Gasteizko lasterraldian, Amets Martinez de Heredia Lumagorriko kideak azaldu moduan. Stonewalleko iraultzaren 50 urte bete dituela nabarmendu nahi dute, batetik: "Gay mugimenduaren iraultzarekin lotzen da, baina



Salburuko kilometroan parte hartzeko deia egin dute; irudian, 2009ko Korrika. LUMAGORRI

Egibide

EGIBIDEk korrikarekin bat

ZURE
**PROIEKTUEN
ESKOLA**

DBH - Batxilergoa - Lanbide Heziketa

klika KORRIKA klika

klika
21. korrika
2009ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

ARRIAGA - JESUS OBRERO - MENDIZORROTZA - MOLINUEVO - NIEVES CANO

www.egibide.eus

zehazki trabestiak izan ziren protagonista mugimendu hartan". Bestetik, Erreterian hil zuten Vicente Badillo Francis trabestia gogoratuko dute, hilketaren 40 urte bete direla. "Urteurren horiek kontuan hartuta, uste genuen aukera hori aldarrikatzeko momentua zela hau". Egun nagusi den ereduaren kontra, gay mugimenduan trabestiek izan duten garrantzia azpimarratu nahi dute: "Azken urteetan, bwatez ere kapitalismoak ezarri duen gay eredu horren aldean, alegia gay guapo, dirudun eta zuriaren aurrean, bestea aldarrikatuko dugu". Gay mugimendua trabestiei esker piztu zela gogoratu du, eta "generoarekin jolasteak" duen garrantzia nabarmendu du Lumagorriko kideak, "genero binarismoa

apurtzeko". "Kilometro hau prestatzerakoan, kontuan izan genuen hauek identitate zapalduak izan direla, eta gure herriak eta hizkuntzak bezala zapalduak izaten jarraitzen dutela".

Euskara, lehentasuna

LGTBI mugimenduaren Gasteizko errealitatea gertutik ezagutzen du Martinez de Hereditak, eta zenbait giro oso euskaldunak ez diren arren, Lumagorrik horretan ekarpen handia egin dezakeela uste du. "Gure aldetik, apustua beti izan da euskara lehenestea, ekimen publiko guztietan; gure taldearen ekarpena handia izan daiteke alde horretatik". Salburuko kilometroa ere mezu hori helarazteko erabili nahi dute: "Oilategia deitzen diogun horren euskalduntzea

aldarrikatzeko". Gogoz hartuko du Korrika Lumagorrik, eta eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileei LGTBI mugimenduaren aldeko apustua egiteagatik: "Ez da txikia Korrikak honekin egiten duen apustua; oso positiboa da, mugimenduari egiten dion keinua ikargarria delako".

Aldarrikapen horiek guztiak uztartu nahi dituzte igandeko kilometroan, eta horretan jolasa izango da nagusi. Takoiekin, bibotearekin, boa batekin... generoarekin jolastea izango da helburua, norberak nahi duen moduan, Martinez de Hereditak gogoratu moduan: "Kilometro irekia da, eta edonork parte hartu dezake, ez izan zalantzarik eta animatu". La Polaca, Yogurina Boroba eta Las Fellini, besteak beste, hantxe izango dira. ■



legutitioneko udala

legutition euskarak

365 egun ditu!



"Barretik negarrera pasatzen gara kilometroz kilometro"

ANE ARISTI ETA GORKA ELGOIBAR KORRIKAKO FURGONETAKO GIDARIAK

HALABEDI.EUS

Ane Aristi eta Gorka Elgoibar Korrikako furgoneten taldeko partaideak elkarrizketatu ditu Hala Bedi Irratiak, euskararen aldeko lasterketaren hasierako egunetan. Gasteizko gidariak elkarrizketa horretan azaldutako hainbat bizipen jaso eta laburbildu ditu ALEAK jarraian.

Zer funtzio dute furgonetako gidariak Korrikan?

Gorka Elgoibar: Funtzioa lekukoa laguntzea da, Garestik Gasteizera; kolektibo eta pertsona guztiek lekukoa eramateko aukera izatea eta gozatzea, giroa alaitzea, jaia piztea... Hori da gutxi gorabehera. Lan gehiena korrika egiten duen jendeak egiten baitu, lekukoa hartzera animatu diren 2.560 pertsona.

Ane Aristi: Oztupoak eta ustekabeak saihestea da, baita ere, gure funtzioa; egia da Korrika oso antolatuta dagoela eta lan asko dagoela atzetik, baina aldi berean oso espontaneoak da eta kilometro bakoitza desberdina da.

Nola kudeatzen da Korrikaren ibilbidea?

A.A.: AEKk hogeita bat Korrika antolatu ditu, eta esperientzia luzea du, horrenbestez; gainera, egun, teknologiak asko laguntzen du. Bi ekiporekin egiten ditugu Gares eta Gasteiz arteko 2.560 kilometroak, baina guretzat ezinezkoa izango litzateke txoko eta errepide guztiak ezagutzea, beraz ezinbestekoa da aurretik ibilbidea zehaztuta izatea. Gainera, eskualdeetako arduradunen lana ere inportantea da, batik bat errepide txikietan.

G.E.: Bai. Teknologiak batzuetan huts egiten du, estaldurarik ez dagoen tokietan esate baterako, eta horregatik inportantea da pertsonen parte-hartzea, edozein ustekabe meteorologiko edo tek-

nologiko izanez gero, alternatibak bilatzeko.

A.A.: Klimatologia bezalako faktoreak ezin dira kontrolatu. Korrikaren edizio batean, Ebro ibaiak gainezka egin zuen eta ezin zen bertatik pasatu. Hor behar duzu eskualdeko jendearen laguntza.

Nola antolatzen zarete? Zenbat lagun zaudete furgonetan?

G.E.: Bi talde gara, zortzi pertsonakoak, eta bi txanda egiten ditugu; batzuk furgonetarekin dauden bitartean besteek atseden hartzen dute. Dena den, Korrika gelditu gabe egiten denez, aldaketak martxan egin behar ditugu. Furgonetan hamalau orduko txandak ditugu, eta ordu horietan denetarik egiten dugu, ezin delako hamalau orduz gidatzen egon edo oihuka egon; beraz, lanak ere txandakatzen ditugu.

Txandak egingo dituzue ere furgonetan siesta egiteko, ezta?

A.A.: Ez da oso ohikoa, baina batzuetan gorputza ez dago ehuneko ehunean eta siestarik ez, baina atsudentxo bat hartu behar dugu. Korrika iraupen-

"HAMALAU ORDUKO TXANDAK EGITEN DITUGU, ETA HORIETAN DENETARIK EGITEN DUGU"



EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | BILBO

www.emun.eus



Hamar egunez Korrikarekin batera furgonetan izango den taldea. KORRIKA

lasterketa da, eta lekukoaren barruan doan mezua helmugara iritsi behar da, derrigorrez.

Denbora inportantea da.

G.E.: Korrikan ohikoena da denbora kudeatzeko zailtasunei aurre egin behar izatea,

atzerapenak daudenean estutu behar dituzulako korrikalariak edo aurreratzen garenean... Sarritan trukoak asmatu behar ditugu.

A.A.: Furgonetaren ekipoaren eginkizuna inportantea da horretan; denboraz larri ibiltzen

garenean musika alaiagoa jartzen dugu korrikalariak bultzatzeko, adibidez.

Aukeratu ezazue Korrikan bizi izan dituzuen unerik hunkigarrienak.

A.A.: Korrika Gasteiztik pasatzen denean ikaragarria da; eta asko gustatzen zait ere Tafallan sartzen denean, furgoneta gabe sartzen delako, eta gertutik ikusten da lekukoa.

G.E.: Herri txikietan pertsona bat omentzen dutenean, adibidez, oso hunkigarria da; eta halaber, Korrikaren amaierak izugarriak dira.

Iruñera eta Bilbora sartu naiz Korrikaren furgoneta gidatzen, eta bietan negarrez sartu naiz, erabat hunkituta, eta gogoratzen dut jendeak esaten zidala: "Animo mutiko, lasai, hartu bolantea".

A.A.: Barretik negarrera pasatzen zara, kilometroz kilometro. ■■■



5+11 arrazoi kirolari eusteko

Baskonia eta Alaves kirol taldeen magalean ari da 5+11 Fundazioa, kirolari lotutako balioak gazteen artean hedatzeko. Zailtasunak dituzten edo esklusio arriskuan dauden umeei ere tokia egin diete egitasmoan.

ERREDAKZIOA

2011n ekin zion ibilbideari 5+11 Fundazioak, Baskoniak Alaves taldearen kudeaketa bere gain hartu zuen urtean, hain zuzen. Ordura arte talde bakoitzak bere fundazio propioa zuen, eta biak batzea horren ondorio izan zela azaldu du 5+11 Fundazioko komunikazio arduradun Andoni Colmenerok. Ez zen bi egitura juridikoren bateratze soila, bi harrobietan kirol zein gizarte arloan egiten zituzten ekimenen erabateko bateratzea baizik. "Indarrak batuz hobeto lan egin daitekeela uste dugu". Horrez gain, "filosofia eta ideia berdinekin aritzea" erdietsi dutela erantsi du fundazioko kideak. Duela hiru edo lau

urtetik hona, gainera, lantoki berdinean lan egiten dute. Kirol ezberdinak izan arren, askotan alde batean zerbait ongi badabil, beste aldean ere funtzionatuko duelakoan dago Colmenero.

Horri esker, urtean zehar ekintza ugari martxan jartzeko bidea ematen diela azpimarratu du. Besteak beste, futbol eta saskibaloia eskola, campusak "edo errendimenduari

bideraturiko beste arlo batzuk; harrobia edo teknifikazio campusak, esaterako". Formazioari dagokienez, entrenatzaileekin eta probintziako kirol gazteekin hitzaldi, teknifikazio edo *klinik* moduko ekintzak bultzatzen ditu fundazioak. "Azken helburua jakintza horiek ahal dugun eta pertsona gehienekin partekatzea da", dio Colmenerok.

Erakundearen helburu nagusia Arabako umeen artean ohitura osasungarriak bultzatzea da, eta horretarako kirola tresna egokia dela argi dute. Tresna izateaz gain, kirolak bere inguruan biltzen dituen baloreak ere helarazi nahi dizkiete gazteei.

**ARABAKO UMEEN
ARTEAN OHITURA
OSASUNGARRIAK ETA
KIROLAREN BALIOAK
SUSTATU NAHI DITUZTE**



Saskibaloia eta futbola gazteen artean sustatzen ditu 5+11 Fundazioak. 5+11 FUNDAZIOA.

Kiroltasuna, gainditzea, talde lana, errespetua, enpatia... egiten dituzten ekintza guztietan balio horiek txertatzen saiatzen direla azaldu du Colmenerok.

Gizarteratzea helburu

Zailtasunak dituzten taldeekin edo eskusio egoeran dauden haurrekin ere lan egiten dute *Baskonia4Life* proiektuarekin. Duela 5 edo 6 urte hasi ziren, saskibaloari lotutako proiektu batekin eta orain arte jasotako emaitza "paregabea" izan dela azpimarratu du. "12 umerekin hasi ginen, hilabeteen behin entrenatzen, eta gutxinaka helburuak argituz joan ginen". Emaitza onak ikusita, gaur egun 75 umerekin astero entrenamenduak egiten dituzte, entrenatzaile eta integratzaile baten laguntzarekin. "Oso harro gaude proiektu horretaz, aukera ezberdintasunean jaiotako umeekin kirol jarduerak egiteaz gain, beste umeekin elkartzea lortzen ari garelako, normalizazioa emanez". Futbolekin ere Alaves Genuine taldea sortu dute, adimen desgaitasuna duten gazteekin osatua. Mutil eta nesken arteko berdintasuna sustatzen saiatzen dira. Aurten bereziki Alaveseko nesken taldearekin "gauza pilo bat" egiten ari direla nabarmendu du.

Hurrengo hitzordua bueltan dutela gogoratu du: Aste Santuan campus bat izango dute. "Umeen oporrak direlakoan, ondo pasatzea eta lagunak egitea dira helburu nagusiak, baina saiatzen gara, baita ere, umek zerbait ikas dezaten futbol edo saskibaloari buruz", adierazi du 5+11 Fundazioko komunikazio arduradunak. ■



**R
I
O
J
A**

GOSARIAK, HAMAIKETAKOAK, EGUNEKO MENUA
ASKOTARIKO KAZOLATXOAK, BOKADILLOAK
TORTILAK, PINTXOAK, TXERRI BELARRIA...

Erreserbak: 945 257082
Goizeko Setatik zabalik

NUEVO | BERRIA
Jatetxea eta taberna
Busturbi kalea 8
GAMARRA - NAGUSIA


**E
D
E
N**

GOSARIAK, KAFETEGIA, PINTXOAK...
Astelehenetik Ostiralera
7:30 - 21:30

945 45 09 06
Panama kalea 18
LAKUA - ARRIAGA
GASTEIZ

Ihudaren ertzetik bidea

GURE BAZTERRAK



Franku

Kuadrilla: Trebiñu.

Udalerria: Trebiñu.

Biztanleak: 68 (2018ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: Elezaharretako Cid pertsonaiaren emazte Jimenak Frankuko errota behin baino gehiagotan bisitatu zuela diote.

ARGAZKIA ETA TESTUA: ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Espainiako diktadorearekin zerikusirik ez duen toponimoa da Franku. Izan ere, hainbat adituren arabera, Erdi Aroko antroponimo batean du jatorria herriaren izenak. Hala, 1136ko Donemiliagako glosetan, Francus izena jasota dago, eta Donemiliaga Kukulako Goldean (1025), berriz, Prangu. Errioxako eskuizkribuan, gainera, bi herrien berri ematen da: Franco de Suso eta Franco de Yuso.

Gorabehera handiak bizi izan ditu Frankuk historian zehar. Hala, Trebiñuko hiribilduaren sorrerarekin batera (1161), inguruan zeuden hainbat herri desagertu ziren, tartean Franco de Suso eta de

Yuso. Hala, 1415. urtean, biztanle gutxi batzuk geratu ziren bertan: "en Franco hun morador" eta "en Franco

cinco moradores". Hurrengo urteetan herriak hustu ziren eta mendiak, soroak zein bestelako ondareak Trebiñuren esku geratu ziren. Alta, gerora, berreskuratuzuten garaiko Franco de Suso, eta 1930ean, Espainiako lehen eroldaren arabera, 80 lagun bizi ziren Frankun. Azken urteetan, gainera, Trebiñura bigarren etxebizitzaren bila joandako gasteiztar ugariaren eskaerari erantzuteko txalet-urbanizazioa eraiki zuten Frankun, Trebiñura doan errepidearen beste aldean.

Ihuda ibaiak zeharkatzen du herria, eta bere garaian garrantzi handikoa izan zen errota gorde dute Frankun, Perez de Turiso familiarena hain zuzen.





Antzerkiak

ESTRENALDIAK!

TTipia

kontratazioa 945243828

www.ttipia-kultura.com

Musikatura





lehen hitza...
euskaraz



Izan zaitez ALEAkide

Astero-astero Araban gertatzen denaren berri ematen du ALEA aldizkariak, eta alea.eus webguneak sarean. Komunikabide arabarra, hurbilekoa eta euskalduna. Zuk ere ALEAkide izan nahi al duzu?



Izan zaitez ALEAkide

ALEA aldizkaria ostiralero etxean jasotzeko, egin harpidedun urtean 55 euroren truke. ALEA erabiltzen eta zabaltzen zure harri-koskorra jarri nahi al duzu? Eman harpidetzaren berri, parte hartu zozketetan, elkarbanatu edukiak sarean, eman inguruan gertatzen denaren berri... Araban euskarazko kazetaritzaren alde... **jar ezazu zure alea!!**



ALEA aldizkariaren harpidetza Urte oso baterako, 3 harpidetza

Astero aldizkaria zure etxean jaso nahi duzu eta oraindik ez duzu harpidetzarik egin? Edo dagoeneko harpideduna zara eta zure inguruko norbaiti harpidetza oparitu nahi diozu? Laboral Kutxari esker, urte oso baterako doako harpidetza irabazteko aukera daukazu. Eman izena maiatzaren 8a baino lehen, eta maiatzaren 10eko aldizkarian ezagutaraziko ditugu irabazleen izenak.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean.

Urte oso baterako harpidetza, 55 euro.

Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

eta informazio gaurkotua izan nahi baduzu, sartu zaitez **alea.eus** webgunera edota jarraitu gaitzazu sarean:



facebook/arabakoalea



@arabakoALEA



@arabakoALEA



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE
GRADUAK

2019

Learning from reality

Ez nuen sekula pentsatuko aurten burututako proiektuak aurrera eramateko gai izango nintzenik.

Jone Alustiza Armendariz

Legazpi. Ingeniaritza Mekanikoa. 2. maila.

INGENIARITZAK

ORONA IDEO MAIATZAK 18

LARUNBATA 10:30

ARRASATE MAIATZAK 23

OSTEGUNA 17:30

GOIERRI EKAINAK 1

LARUNBATA 10:30

HEZKUNTZA

ESKORITZA MAIATZAK 11

LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABAETA MAIATZAK 11

LARUNBATA 11:00

EKINTZAILERIA, ENPRESA KUDEAKETA

BILBO MAIATZAK 2

OSTEGUNA 18:00

OÑATI MAIATZAK 9

OSTEGUNA 18:00

BIDASOA MAIATZAK 16

OSTEGUNA 18:00

GASTRONOMIA ZIENTZAK

— Basque Culinary Center

DONOSTIA MAIATZAK 11

LARUNBATA 10:30



Etorriko zarela jakinarazi!

902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

RPS 84/14

FARMACIA
PUENTE
1.826

San Frantzisko Kalea, 2 - Gasteiz
www.farmaciapuente.com



Lizarralde soinua

TXALAPARTA S.L.



Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ



AGENDA

Apirilaren 12tik 25era

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Anari

Ostirala 12, 20:00etan, Artiumen.

LAUDIO Guda Dantza

Akerbeltz, Dientes de Luna, Bajo Zero eta beste hainbat talderekin. Puntazo Egunaren barruan.

Larunbata 13, 21:30etik aurrera, Matiasen.

GASTEIZ Mugaldekoak Band

Asteartea 16, 20:30ean, Parral tabernan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Aukerak'

Nerea Atxa eta Feli Txabarrirekin. *Larunbata 13, 19:00etan, Beñat Etxepare antzokian.*

GASTEIZ 'Zazpi senideko'

Axut taldearen eskutik. Zurrumbilo jaialdiaren barruan. *Igandea 14, 19:00etan, Baratza aretoan.*

GASTEIZ 'Beroki gorria'

Gerrako haurren inguruko ikuskizuna. Patxi Zubizarreta, Pello Ramirez, Maddi Oihenart, Sahatsa Ramirez eta beste hainbat artistarekin. *Asteazkena 17, 20:30ean, Principal antzokian.*

BERTSOLARITZA

LAUDIO 'Bertso hop!'

Iñaki Viñaspre, Paula Amilburu eta



OLATZ SALVADOR

AMURRIO Olatz Salvador

Sabin Guarestirekin batera eskainiko du kontzertua. *Ostirala 12, 22:30ean, Burubio aretoan.*

Asier Rubiorekin. Patxaran Festa jaialdiaren barruan.

Ostirala 12, 21:30ean, gaztetxean.

HAURRAK

GASTEIZ 'Inondik inora'

Benetanbe taldearen eskutik. 4 urtetik gora. *Ostirala 12, 17:00etan, Baratza aretoan.*

ARTZINIEGA Ipuin kontalaria

Karabi Karaba kontalari taldearen eskutik. *Ostirala 12, 18:00etan, udal liburutegian.*

GASTEIZ 'Golzen. 5.0.'

ETBko serie arrakastatsuaren egokitza pen a aurkeztuko dute. Musikala. *Ostirala 12, 19:00etan eta 21:00etan, Principal antzokian.*

DORROÑO Kidam magoa

Magia ikuskizuna Kidam magoaren eskutik. *Ostirala 12, 19:30ean.*

AGURAIN 'Ilusioaren doinua'

Txotxongilo, antzerki eta zirko ikuskizuna. Zirkun Zirko taldearen eskutik. *Larunbata 13, 18:00etan eta 20:00etan, Harresi aretoan.*

LAUDIO 'Asterix: edabe magikoaren sekretua'

Haurrentzako pelikula. *Igandea 14, 17:30ean, Audioalde eskolan.*

GASTEIZ 'Isiltasunaren haitzuloa'

Mikel Cañadak idatzitako ipuin musikala. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Dantzerti taldeen eskutik. 10 eta 16 urte bitartean. *Igandea 14, 18:00etan, Principal antzokian.*

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Nola kontatu ipuinak haurrei'

Iñaki Carreteroren eskutik.

Ostirala 12, 19:00etan, Judimendi gizarte etxean.

ARAIA Kantuz Kantu

Kantuan ibiliko dira herriko kaleetan.

Ostirala 12, 19:30etik aurrera.

GASTEIZ GEUrekin mendira

Etzarri Aranatz, Beriain eta Unanu bisitatuko dituzte.

Larunbata 13, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta.

GASTEIZ Alde Zaharra ezagutzeko bisitaldia

Erdi Aroko hirigunearen leku interesgarrienak bisitatuko dituzte.

Larunbata 13, 11:30ean, turismo bulegotik abiatuta.

GASTEIZ 'Martuteneko kartzelan'

Irakurketa dramatizatua, Bernardo Atxaga eta Jose Kruz

Gurrutxagarekin.

Astelehena 15, 19:00etan, Goiuri jauregian.

LAUDIO Irakurle Klub Feminista

Virginie Despentesen *King Kong teoria* izango dute solasgai.

Asteazkena 17, 17:30ean, liburutegian.

GASTEIZ Korrika!

ALEAK, Oihanederrek eta GEU elkarteak batera egingo dute 21.

Korrikako kilometro bat.

Igandea 14, 10:30ean, Juan Karlos I hiribidea eta Stockholm kaleen artean.



Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com



APIRILA

Ot. 11 EGURRA TA KITTO + GORPUZKINGZ

Os. 12 NIÑA COYOTE ETA CHICO

TORNADO + LIHER

Lr. 13 COCK SPARRER
+ THE GUILTY BRIGADE
+ BRIGADE LOCO



21. korrika
SARETAN GASTEIZ

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

Zorro Delegatuak.

Aurrezkitik inbertsiorako bilakaera.

- 3.500 kudeatzaile ziurtatutako gaitasunarekin.
- Zorro konbinagarriez osatutako 4 eredu.
- Inbertsioetan Estatuko 5. kudeatzailea.

Kutxabank Gestión SAU IKESK
Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.

Kutxabank, SA.
Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo.
IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza
Erregistroan inskribatuta.
5226 Tomoa, 0 Liburua,
BI-58729 Orria, 1 Folioa,
1. Inskripzioa.

Lamarck-en teorian ingurumeneko aldaketei egokitzeko espezieen bilakaera azaltzen da.

Kutxabankek merkatuen aldaketei erantzuten die, fondoen Zorro Delegatuekin. Inbertsioetarako zerbitzu honek bere eskarmentu eta profesionaltasun osoa jartzen du bezeroen esku.

kutxabank

**ERRAZ
HURBIL
ORAIN**